



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2024ko agorrrilaren 13ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko agorrrilaren hamahiruan, arratseko zortzietan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

**Hor zirenak** : CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

**Barkatuak zirenak** : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, LEKUMBERRY Xantxo.

**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : PERUSANSENA Elodie.

Deialdiaren eguna : 2024ko agorrrilaren 9

Afitxatze eguna : 2024ko agorrrilaren 9

### **8. ERABAKIA: HELAGUNEKO XANXOENIA LANDA-BIDEAREN ZATI BATEN BALIOGABETZEA ETA ALIENATZEA**

*(3.5 nomenklatura)*

Auzapezak azaldu du, 2021eko urtarrilaren 8ko erabakia segituz, non herriko Helaguneko Xanxoenia landa-bideko zati bat baliogabetzeko eta alienatzeko proposamena egin den, 2022ko maiatzaren 16ko ordenantza bidez izendatu duen Pierre Laffore inkesta komisarioari eskatu diola inkesta publiko baten egitea.

Txosteneko agiri guztien berri ukanik; inkesta denboran bildu adierazpen, ohar eta erreklamazioak eta inkesta-komisarioaren ondorioak irakurririk;

Legeak behartzen dituen izapide guztiak bete direla kontuan hartuz;

Kontuan izanik proiektuaren kontrako salaketa ezarri duen herritarrari erantzun bat eman zaiola;

Kontuan izanik herritar horrek mugitu ahal izateko berme iraunkorra ukan duela,

Inkesta komisarioaren aldeko iritzia kontuan hartuz;

ARRAZOI GUZI HORIENGATIK,

Herri Biltzarrak,

#### **ERABAKI DU:**

- Helaguneko Xanxoenia landa-bideko zati baten baliogabetzea eta alienatzea,

- 1 065 ca-ko azalerako landa-bidearen zatia David LANDART jaunari uztea, metro koadro bakoitzeko 0,15 €an, eta erantsia den planoaren arabera,

**Auzapezari ESKATZEN DIO** ekintza horren egiteko izapide eta formalitate guzien egitea, besteak beste herriko bideen plano eta sailkapen taula eguneratzea, eta horretarako salmenta agiria egitea.

**ZEHAZTU DU**, notario edo administrazio gastuak eskaera egin duen norbanakoaren gain direla.

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

Kide kopurua : 15  
Hor zirenen kopurua : 9  
Balizko boz kopurua : 9  
ALDE : 9  
KONTRA : 0  
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko agorrilaren 13an,  
Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2024/08/14an publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/08/14an.